



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

Tokiko Gobernu Batzak
Junta de Gobierno Local

Akta 2018ko Ekainaren 18a
Acta 18 de Junio de 2018

TOKIKO GOBERNU BATZORDEA

JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

TOKIA/LUGAR: SALA COMISIONES DE LA CASA CONSISTORIAL DE DURANGO

EGUNA / FECHA: 2018/06/18

HASIERA / INICIO: 17:00etan

BERTARATUAK / ASISTENTES:

PRESIDENTEA / PRESIDENTA (EAJ/PNV):

Doña Aitziber Irigoras Alberdi (EAJ/PNV), Alkate andrea

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (EAJ-PNV):

1ª Teniente de Alcalde, Doña Pilar Ríos Ramos andrea PSE-EE (PSOE)

2ª Teniente de Alcalde, Doña Maria José Balier Orobio-Urrutia andrea (EAJ/PNV)

3º Teniente de Alcalde, Don Iker Oveja Sobrón jauna (EAJ/PNV)

4ª Teniente de Alcalde, Doña Goiztidi Díaz Basterra andrea (EAJ/PNV)

6º Teniente de Alcalde, Don Jose Mari Andrés Ibañez de Garaio jauna (EAJ/PNV)

EZIN ETORRIA ADIERAZTEN DUTE/JUSTIFICAN SU AUSENCIA

5º Teniente de Alcalde, Don Humberto Jaio Sagasti jauna (EAJ/PNV)

IDAZKARIA/ SECRETARIO

Don Ramon Sorarrain Tolosa jauna (Idazkari Nagusia/Secretario General)

IZAERA / NATURALEZA: OHIKOA / ORDINARIA

DEIALDIA / CONVOCATORIA: LEHENA / PRIMERA

Bi mila eta hemezortziko ekainaren 18an, arratsaldeko 17:00etan eta Aitziber Irigoras Alberdi (EAJ/PNV) alkate Andrea buru delarik, Udaletxeko Batzorde Gelan Tokiko Gobernu Batzordea osatzen duten zinegotziak bildu dira.

Presidentziak bilkurari hasiera eman dio eta deialdia osatzen duten gaiak aztertu dira. Gaiak honako hauek dira:

BAT.- AURREKO AKTA-ZIRRIBORROA
IRAKURTZEA ETA, BIDEZKOA BALITZ,
ONARTZEA

Aho batez onartzen dira 2018ko maiatzaren 7ko eta 21eko aktak.

A 18 de junio de 2018, siendo las 17:00 horas, y bajo la Presidencia de la Sra. Alcaldesa, Doña Aitziber Irigoras Alberdi (EAJ/PNV), se reúnen en la Sala de Comisiones de la Casa Consistorial los/as Concejales/as miembros de la Junta de Gobierno Local.

Abierta la sesión por la Presidenta, se pasó a tratar de los temas que componen el Orden del Día de la presente sesión y, que son los siguientes:

UNO.- LECTURA Y APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL BORRADOR DEL ACTA ANTERIOR.

Se aprueban, por unanimidad, las actas correspondientes a las sesiones de 7 y 21 de mayo de 2018.



BI.- GAI INTERESDUNEN BERRI EMATEA

* 2. Alkateorde **Balier Orobio-Urrutia andreak (EAJ/PNV)** Goienkale-Kalebarriko karkaba pribatuko auzokideekin izandako bileraren berri eman du. Batzarrean karkabaren egoeraren berri eman dute auzokideek.

TRES.- INFORMAR FAVORABLEMENTE CONVENIO CON "DENDAK BAI".

Tokiko Gobernu Batzordea, aho batez, **DURANGOKO UDALAREN ETA "DENDAK BAI" MERKATARIEN ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMEN**aren aldeko irizpena eman du. Hitzarmenak haxe dio:

JUSTIFIKAZIOA

Durangoko Udala jakitun izanik Toki-Korporazioek merkataritza-politikaren esparruan gero eta jarrera garrantzitsuagoa jokatu behar dutela, eta kontutan harturik udalerrian dagoen jarduera ekonomikorik nagusia, populazio aktibo gehiena bereganatzen duen jarduera, merkataritza eta zerbitzu-sektorearekin zerikusia duen jarduera dela.

Kontziente izanik, halaber, Durangoko udalerriko merkataritza indartzerako beharrezkoa dela jarduera desberdinak elkartuko lituzkeen akordio orokor baten sinadura

BILDURIK

Batetik, Aitziber Irigoras Alberdi andrea, Durangoko Udaleko alkatea den heinean (NAN 30.671.142), eta ekintzaren fede ematen duen Idazkari Nagusi RAMON SORARRAIN TOLOSA jaunak lagundurik, NAN 14.586.472X

Eta bestetik. GUILLERMO OARBEASKOA AREITIO jauna, NAN 72.250.930-H Durangoeko Mas Dendak (Dendak Bai) Dendarien Elkartaren Presidente gisa.

AITORTU ONDOREN hitzarmena aurrera eramateko, batak besteari behar besteko gaitasun juridikoa.

ADIERAZTEN DUTE:

I.- Durangoko udalerrian, +dendak eta Durango Bai elkartearen fusioaren ondoren ez dagoela beste merkataritza-elkartarik. Aipatutako fusioaren kopia merkataritza-Zuzendaritzari bialdu zaio 2012ko uztailaren 26an 2012006612 erregistro-zenbakiarekin.

DOS.- DACIÓN DE CUENTA DE ASUNTOS DE INTERÉS.

* La 2ª Teniente de Alcalde, **Sra. Balier Orobio-Urrutia (EAJ/PNV)** da cuenta de la reunión mantenida con l@s vecin@s colindantes a la cárcava privada Goienkale-Kalebarria en la que se le traslada la situación en la que se encuentra la misma.

TRES.- INFORMAR FAVORABLEMENTE CONVENIO CON "DENDAK BAI".

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad de los presentes, informa favorablemente el **CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE DURANGO Y LA ASOCIACIÓN DE COMERCIANTES DE DURANGO "DENDAK BAI"**, cuyo tenor literal es el siguiente:

JUSTIFICACIÓN

El Ayuntamiento de Durango es consciente del papel cada vez más importante que las Corporaciones Locales deben asumir en el marco de la política comercial y habida cuenta de que la actividad económica predominante en el municipio es la relacionada con el sector comercial y de servicios, que ocupa a la mayor parte de la población activa.

Conscientes, asimismo, de que se hace necesaria la firma de un acuerdo marco general que agrupe las distintas actuaciones para la revitalización comercial del municipio de Durango.

REUNIDOS:

De una parte, Doña AITZIBER IRIGORAS ALBERDI, con D.N.I. nº 30.671.142-K, Alcaldesa-Presidenta del AYUNTAMIENTO DE DURANGO, asistida del Secretario General Don RAMON SORARRAIN TOLOSA, con D.N.I. nº 14.586.472-X, que da fe del acto.

Y de otra, Don ALEXANDER PALACIOS ANDRÉS con D.N.I. nº DNI 30689165N, en su condición de Presidente de la Asociación de Comerciantes de Durango Dendak Bai. CIF G48411235.

RECONOCIÉNDOSE las capacidades jurídicas y de obrar necesarias y suficientes para el presente convenio,

MANIFIESTAN:

I.- Que no existen más asociaciones de comerciantes en el municipio de Durango tras la fusión de +dendak y Durango Bai, de cuyo convenio se ha remitido copia a la Dirección de Comercio con número de entrada 2012006612 y fecha de 26 de julio de 2012.



II.- Durangoko "Dendak Bai" Dendarien Elkartearen egoitza Durangoko Askatasun Etorbidea, 2 kalean duela.

III.- Durangoko Udalak, Durangaldeko Dendarien Elkartearekin elkarlaguntza eremu bat sorrerazi nahi duela udal-merkataritza indartzeko asmoz.

KLASULAK

Lehen. Xedea

Helburua da diru-laguntza ematea goian aipatutako elkarleak egingo dituen egitasmoak burutzeko.

Bigarren.- DURANGOKO UDALAK ONARTUTAKO KONPROMISOA:

I. Durangoko Udalak konpromisoa hartzen du, diru-laguntza izendunaren bidez, 2018. urtean zehar aipatutako elkarleak egingo dituen jarduerak burutzeko 38.000,00 euroko zenbatekoa emateko. Jarduerak eta obligazioak hitzarmen honen hirugarren klausulan zehazten dira.

Hitzarmen honetan zehazturiko diru-kopurua bateragarria da beste edozein instituzio publiko edo pribatuk xede bererako eman ditzakeenekin.

DIRULAGUNTZA ORDAINTZEKO ERA.-Durangoko Udalak honela ordainduko dio DURANGOKO "DENDAK BAI" DENDARI ELKARTEARI: % 60a hitzarmena indarrean sartzen denhilabete azkeneko egunean ordainduko da. Gainerako % 40a, diru-laguntza eman izanagatik helburua bete ondoren eta gastua justifikatu ostean ordainduko da. Justifikatzerako orduan hitzarmen honetan hartutako konpromisoak bete direnei buruzko dokumentazio egiaztagarria ere aurkeztu behar da. Ez da fidantzarik jarri behar izango administrazioak aurreraturiko diru kopuruarengatik.

Hirugarrena. – DURANGOKO "DENDAK BAI" DENDARIEN ELKARTEAK ONARTUTAKO KONPROMEZUAK

Durangoko "Dendak Bai" dendarien Elkarleak ondoren garatzen diren konpromisoak betetzeko konprometua hartzen du:

DURANGOKO JARDUERAK – 2018

Jarraian, Dendak Bai Durangaldeko merkatarien elkarleak 2018. urterako aurrekusi dituen jarduerak jasotzen dira. Gutxigora beherako aurrekontua ere jasotzen da.

II.- La Asociación de Comerciantes de Durango "Dendak Bai" tiene su sede en el municipio de Durango, en Askatasun Etorbidea nº 2.

III.- Que el Ayuntamiento de Durango desea establecer un marco de colaboración con la asociación de Comerciantes de Durango "Dendak Bai", con el fin de favorecer la revitalización del comercio local.

CLÁSULAS:

Primera. Objeto.

Se pretende la concesión de una ayuda económica para la realización de los proyectos de actuación presentados.

Segunda.- COMPROMISO ASUMIDO POR EL AYUNTAMIENTO DE DURANGO:

I. El Ayuntamiento de Durango se compromete a aportar por medio de una subvención nominativa un montante total durante el año 2018 para la ejecución de las actividades y obligaciones que en la cláusula tercera se desarrollan que asciende a 38.000,00 euros

Dicha cantidad prevista en el presente convenio es compatible con aquellas otras que, teniendo el mismo fin, pudieran ser otorgadas por cualquier otra institución pública o privada.

FORMA DE PAGO DE LA SUBVENCIÓN.- El pago de la subvención por el Ayuntamiento de Durango a LA ASOCIACIÓN DE COMERCIANTES DE DURANGO "DENDAK BAI" se realizará de la forma siguiente: 60% en el plazo de un mes a contar desde la entrada en vigor del convenio. El 40% restante se abonará tras el cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención y una vez justificado el gasto, así como la documentación acreditativa de la materialización de los compromisos adquiridos en este Convenio. No será necesario afianzar los importes adelantados por la Administración.


Tercera.- COMPROMISO ASUMIDO POR LA ASOCIACIÓN DE COMERCIANTES DE DURANGO "DENDAK BAI"

LA ASOCIACIÓN DE COMERCIANTES DE DURANGO "DENDAK BAI" se obliga a cumplir los compromisos que a continuación se desarrollan:

ACTIVIDADES DURANGO – 2018

A continuación se desarrollan las actividades que la Asociación de Comerciantes de Durangaldea, Dendak Bai, tiene previsto realizar durante el año 2018. Junto a las mismas se incluye un presupuesto orientativo.

ANIMAZIOA ETA DINAMIZAZIOA ANIMACIÓN Y DINAMIZACIÓN	Aukeren azoka Feria de oportunidades	Martxoa	5.000 €
	Oparia erosketekin Regalo con las compras	Ekaina	4.000 €
	Durango Fashion Gaua	Iraila	6.000 €
	2018ko egutegia Calendario 2018	Azaroa	5.000 €



Idazkaritza
Secretaría

	Black Friday, navidad...	Urte osoan	5.000 €
DURANGO TXARTELA	Kanpainak Campañas	Urte osoan	10.000 €
ETXEZ ETXEKO BANAKETA REPARTO A DOMICILIO	Nominak, materiala eta pubizitatea Nóminas, material y publicidad	Urte osoan	10.000 €
BESTELAKOAK OTROS	Komunikazio ekintzak Acciones de comunicación	Urte osoan	2.700 €
	Informazio aldizkaria Boletín informativo		1.000 €
	Prestakuntza Formación		3.000 €
	Babesleak Patrocinios		2.500 €
			54.200 €

Klausula honetan zehazten diren jarduerak aldatu edo ordezkatu egin daitezke.

Elkarteak udal diru-laguntza justifikatzeko aurkeztu behar duen gutxieneko zenbatekoa 54.200,00 euro da.

Laugarrena.- Honako hitzarmenean aurreikusten diren kantitateak kobratu ahal izateko honako baldintzak bete beharko dira:


1. Legez elkarte moduan eratuta egotea.
2. Irabazi asmorik ez izatea eta ekonomikoki edo instituzionalki irabazizko erakundeen mende ez egotea.
3. Udalaren diru-laguntzak aurrez jaso diren kasuetan, emakida horretatik eratorritako betebeharretan egunean egotea.
4. Zerga, Gizarte Segurantzza eta Durangoko Udaleko zerga betebeharren betekizunean egunean egotea.
5. Elkarkea korporazioarekiko zerga betebeharretan egunean dagoela hartuko da ekitaldian zorrik eta zerga isunik ez duenean; horiek atzeratuta, zatikatuta edo haien exekuzioa bertan behera utzita dagoen kasuetan salbu. Egiaztapen horiek Udal Diruzaintzak ofizioz gauzatuko ditu.
6. Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorreko 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan jasotako inolako debekuetan sartuta ez egotea. Artikuluak erreferentzia egindako debekuetan sartuta ez egotearen egiaztapena diru-laguntza ematen duen organoaren aurreko aitorten arduratsuen bidez egingo da.

Las actividades que se desarrollan en la presente cláusula podrán ser objeto de modificación y/o sustitución y/o ampliación.

El montante mínimo de gasto que la Asociación deberá justificar para el cobro íntegro de la subvención municipal es de 54.200,00€,

Cuarta.- Será requisito previo para el cobro de las cantidades objeto de convenio el cumplimiento de los siguientes requisitos:

1. Estar legalmente constituidas como Asociación.
2. Carecer de fines de lucro y no depender económica o institucionalmente de entidades lucrativas.
3. Estar al corriente, en el caso de haber recibido subvenciones de este Ayuntamiento con anterioridad en el cumplimiento de las obligaciones contraídas por tal concesión.
4. Estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social y de las obligaciones tributarias con el Ayuntamiento de Durango.
5. Se considerará que la asociación está al corriente de las obligaciones tributarias con esta Corporación cuando no mantenga deudas y sanciones tributarias en período ejecutivo, salvo que se encuentren aplazadas, fraccionadas o cuya ejecución estuviese suspendida. Tales comprobaciones se realizarán de oficio por la Tesorería Municipal.
6. No estar incurso en ninguna de las causas de prohibición contenidas en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones. La acreditación de no estar incurso en las prohibiciones a que se refiere este artículo se realizará mediante declaración responsable ante el órgano concedente de la subvención.



Bosgarrena.- Hitzarmenaren onuradunaren betebeharrak.


Elkarteak honako betebeharrak izango ditu:

- a) Diru-laguntzak ematea oinarritu zuen helburua betetzea, proiektua egikaritzea, jarduera gauzatzea edo jarrera hartzea.
- b) Durangoko Udalaren aurrean diru-laguntza ematea edo hartaz gozatzea zehazten duten baldintzak eta eskakizunak betetzen direla, jarduera gauzatzen dela eta helburua betetzen dela justifikatzea.
- c) Udal organoek gauzatu beharreko egiaztapen-jardueren mende jartzea, aurreko ekintzen jardueran eskatutako informazio guztia ekarriz.
- d) Udalari diru-laguntza jasotako jarduerak finantzatzen dituzten bestelako diru-laguntzen, laguntzen, diru-sarreraren edo baliabideen berri ematea. Jakinarazpen hori ezagutu bezain pronto gauzatuko da eta, betiere, jasotako funtsei emandako aplikazioaren justifikazioaren aurretik.
- e) Eskatzen den kasuetan, lagapenaren ebazpen-proposamena eman aurretik egiaztatzea, zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzaren aurrean egunean zaudela eta Foru Ogasunarekin atzeratuta, zatikatuta edo exekuzioa bertan behera utzitako zor edo zerga-isunik ez izatea.
- f) Udal Ogasunarekin zorrik ez dagoela ziurtatzea; alderdi hori udal diruzaintzak igorritako ziurtagiriaren bidez egiaztatu ahal izango da eta udalak ofizioz egiaztatu ahal izango du. Epea betetako zorraren, zor likidoaren edo zor galdagarriaren ondorioz, onuraduna zorduna denean, udalak konpentsazioa hitzartu ahal izango du.
- g) Kontabilitateko liburuak, izapidetutako erregistroak eta gainerako dokumentuak kasu bakoitzean onuradunari aplikagarri zaion merkatuko eta sektoreko araudiak eskatutako baldintzetan behar bezala ikuskatuta izatea, baita deialdiko oinarri arautzaileek eskatutako kontabilitateko egoera eta erregistro espezifikoak ere, egiaztapen- eta kontrol-gaitasunen behar bezalako egikaritzea bermatzeko.
- h) Jasotako funtsen aplikazioaren frogagiriak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol-ekintzen helburu izan daitezkeen heinean.
- i) Oinarrietan aurrez ikusitako moduetan diru-laguntzak jaso ditzaketen edozein motatako programa, jarduera, inbertsio edo jardueren finantziazioaren izaera publikoko publizitate egokia emango dute.

Quinta.- Obligaciones de la beneficiaria del convenio.

Serán obligaciones generales de la Asociación, las siguientes:

- a) Cumplir el objetivo, ejecutar el proyecto, realizar la actividad o adoptar el comportamiento que fundamentó la concesión de las subvenciones.
- b) Justificar ante el Ayuntamiento de Durango el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión o disfrute de la subvención.
- c) Someterse a las actuaciones de comprobación, a efectuar por los órganos municipales, aportando cuanta información le sea requerida en el ejercicio de las actuaciones anteriores.
- d) Comunicar al Ayuntamiento la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas. Esta comunicación deberá efectuarse tan pronto como se conozca y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos percibidos.
- e) Acreditar, en aquellos casos en los que resulte exigible, con anterioridad a dictarse la propuesta de resolución de concesión, que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social, así como no mantener con la Hacienda Foral deudas o sanciones tributarias que se encuentren aplazadas, fraccionadas o cuya ejecución estuviese suspendida.
- f) Acreditar que no existe deuda pendiente con la Hacienda Municipal, extremo que se podrá acreditar mediante certificación expedida por la tesorería municipal, si bien el Ayuntamiento podrá comprobarlo de oficio. Cuando el beneficiario sea deudor con motivo de una deuda vencida, líquida o exigible, el Ayuntamiento podrá acordar la compensación.
- g) Disponer de los libros contables, registros diligenciados y demás documentos en los términos exigidos por la legislación mercantil y sectorial aplicable al beneficiario en cada caso, así como cuantos estados contables y registros específicos sean exigidos por las bases reguladoras de la convocatoria, con la finalidad de garantizar el adecuado ejercicio de las facultades de comprobación y control.
- h) Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control.
- i) Deberán dar la adecuada publicidad del carácter público de la financiación de programas, actividades, inversiones o actuaciones de cualquier tipo que sean objeto de subvención en la forma prevista en estas bases.



- j) Diru-laguntzei buruzko 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta haren garapen-araudian jasotako kasuetan funtsen itzulpena gauzatzea.

Seigarrena.- Justifikazioa eta dirulaguntzaren ordainketa.

Diru-laguntzaren onuradunek udalaren aurrean justifikatu beharko dute diru-laguntza jasotako jardura gauzatu izana,

Emandako diru-laguntzaren justifikazioa egindako gastuen ordainagiriak, fakturak edo trafiko juridikoan onartutako beste edozein dokumentu aurkeztuz egingo da, gauzatutako inbertsioaren zenbateko totalarekin eta, kasuan kasu, diru-laguntza emandako urteko data izan beharko du,

Zazpigarrena.-Justifikaziorako epea

Justifikazioa egiaztatzeko dokumentazioa diruz lagundutako egitasmoa burutu eta hiru hilabeteko epean aurkeztuko da.

Hala ere, diru-laguntza eman duen organoak justifikaziorako epea zabaldu ahal izango du, onuradunari horretarako adierazitako epeetan justifikatzea galarazten dieten arrazoiak daudenean

Zortzigarrena. Dokumentazioaren azterketa

Diru-laguntzaren aplikazioaren frogagiria udaleko kontrol-zerbitzuak jasoko du eta hark aurkeztutako kopiak alderatuko ditu eta jatorrizkoak bideratuko ditu.

Deialdian eskatutako dokumentazioa osatu eta udaleko kontrol-zerbitzuak legezketasunari buruzko txostena igorri ondoren, diru-laguntzaren justifikazioarekin lotutako proposamena egingo da eta hura eman zuen organoari igorriko zaio hark onetsi edo uka dezan.

Ekarritako egiaztagiriekin erabateko desadostasuna edo desadostasun partziala egonez gero, edo justifikatzeko epea igarota gauzatu ez balitz, hartzaileari eskatuko zaio 10 eguneko epean justifikazioa aurkezteko edo aurkeztutakoaren gabeziak edo akatsak zuzentzeko; hala egin ezean, diru-laguntza itzultzeko prozedura hasiko da, Diru-laguntzen Lege Orokorrean aurrez ikusitako zigor erregimenaren aplikazioa albo batera utzita, dagokionean.

Diru-laguntza ez da justifikatutzat hartuko, hura eman duen organoa alde agertzen ez den arte.

Bederatzigarrena.-Aldaketa eta ezeztatzea

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako edozein baldintzaren aldaketa, beste administrazio, erakunde publiko edo pribatuek emandako aldi bereko laguntzen

- j) Proceder al reintegro de los fondos percibidos en los supuestos contemplados la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, y su normativa de desarrollo.

Sexta.- Justificación y pago de la subvención.

La beneficiaria de la subvención estará obligada a justificar ante el Ayuntamiento la realización de la actividad objeto de subvención.

La justificación de la subvención concedida deberá efectuarse mediante la presentación de facturas o cualquier otro documento admitido en el tráfico jurídico, por importe del total de la inversión realizada, debiendo, en su caso, estar datada durante el año en que se haya concedido la subvención

Séptima. Plazo para la justificación.

La documentación acreditativa de la justificación se presentará en el plazo de tres meses a contar desde finalización del conjunto de proyecto subvencionado.

No obstante, el órgano que otorgó la subvención podrá ampliar el plazo para su justificación cuando existan razones fundadas que impidan al beneficiario la justificación de la misma dentro de los plazos señalados al efecto.

Octava.- Examen de la documentación.

La documentación justificativa de la aplicación de la subvención será recibida por los servicios municipales de intervención, quienes cotejarán las copias presentadas y diligenciarán los originales.


Una vez completada la documentación exigida por la presente convocatoria, y emitido informe por la Intervención municipal acerca de su legalidad, se elaborará propuesta en relación con la justificación de la subvención, que se remitirá al órgano que la concedió para su conformidad o disconformidad.

En el caso de que existiese disconformidad total o parcial con los justificantes aportados, o si, transcurrido el plazo de justificación no se hubiese procedido a la misma se requerirá al perceptor para que, en el plazo de 10 días, proceda a presentar la justificación o subsanar las omisiones y/o defectos de la justificación presentada, iniciándose en caso contrario, el procedimiento para el reintegro de la subvención, con independencia de la aplicación del régimen de sanciones previsto en la Ley General de Subvenciones, si procediese.

No se dará por justificada la subvención, en tanto el órgano que la concedió no se pronuncie favorablemente sobre la misma.

Novena.- Modificación y revocación.

Cualquier modificación de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, incluida la obtención concurrente de ayudas o subvenciones



edo diru-laguntzen eskurapena barne, Durangoko udalak ezagutu beharko du gertatzen den unean, eta horrek emakidaren ebazpenaren aldaketa ekarri ahal izango du.

Kasu horretan, diru-laguntzaren onuradunak organo emaileari eskatu ahal izango dio emakidaren ebazpena aldatzeko, exekuzio- eta justifikazio-epeak barne, baina diru-laguntzaren edo laguntzaren helmuga edo xedea inolaz ere ezingo da aldatu.

Aldaketaren eskaera behar bezala arrazoituta egon beharko du, aldaketa eragindako baldintza agertu bezain pronto aurkeztuko da eta finkatutako justifikazio epea amaitu aurretik.

Diru-laguntzaren edo laguntza publikoaren aldaketa adosteko egintza organo emaileak onetsiko du, aldez aurretik dagokion espediente bideratuta, eta hari gehituko zaizkio dagozkion txostenak eta, kasuan kasu, onuradunaren eskaera edo alegazioak.

Deialdiko baldintzaren bat bete ezean, emandako diru-laguntzaren ezeztatzea gertatuko da eta ordaindutako zenbatekoak itzuliko dira.

Hamargarrena.-Ez-betetzeen ondorioak

Ezarritako baldintzak ez betetzeak edo garaiz kanpo betetzeak, xede publikoa gauzatzeko epea erabakigarria denean, eskubidearen erabateko galera eta, kasuan kasu, itzulketa ekarriko du.

Baldintzak partzialki betetzeak edo epearen barruan jardueraren zati bat baino ez gauzatzeak eta zalantzarik gabe onuradunaren konpromisoa betetzera daraman asmoa ziurtatzen denean, betiere, edo ezinbesteko kasuetan, diru-laguntza partzialki ordaintzea edo, kasuan kasu, partzialki itzultzea ekarriko du, totalari dagokionez gauzatutako jardueraren proportzioa aplikatuz.

Udaleko zerbitzuek egiaztapena edo finantzen kontrola gauzatzean justifikatutako gastu guztien edo zati baten ordainketa falta atzemango balitz, diru-laguntza kobratu ondoren, itzultzea eskatuko da proportzionaltasun printzipioa aplikatuz, eta horren ondorioetarako diru-laguntza itzulgarritzat joko da ordaindu gabeko gastuen proportzioan.

Hamaikagarrena.-Diru-laguntzaren itzulketa

Egokia izango da jasotako zenbatekoen itzulketa eta berandutze-interesak eskatzea diru-laguntza ordaintzetik itzulketaren jatorria hitzartu arte, Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorreko 37. artikuluan adierazitako kasuetan.

otorgadas por otras administraciones o entes públicos o privados, que deberá estar en conocimiento del Ayuntamiento de Durango, en el momento en que se produzca, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de la concesión.

En este caso el beneficiario de la subvención podrá solicitar del órgano concedente de la misma la modificación de la resolución de la concesión, incluidos los plazos de ejecución y justificación, sin que en ningún caso pueda variarse el destino o finalidad de la subvención o ayuda.

La solicitud de modificación deberá estar suficientemente justificada, presentándose de forma inmediata a la aparición de las circunstancias que lo motiven y con antelación a la finalización del plazo de justificación establecido.

El acto por el que se acuerde la modificación de la subvención o ayuda pública será adoptado por el órgano concedente de la misma, previa instrucción del correspondiente expediente al que se incorporarán los informes pertinentes y, según el caso, la solicitud o las alegaciones del beneficiario.

En caso de incumplimiento de alguna de las condiciones de la convocatoria procederá la revocación de la subvención concedida y el reintegro de las cantidades abonadas.

Décima.- Efectos de los incumplimientos.


El incumplimiento de cualquiera de las condiciones impuestas o su cumplimiento extemporáneo cuando el plazo fuera determinante para la consecución del fin público perseguido será causa de pérdida total del derecho y, en su caso, de reintegro.

El cumplimiento parcial de las condiciones o la realización en plazo de sólo una parte de la actividad, siempre que se acredite una actuación del beneficiario inequívocamente tendente a la satisfacción de los compromisos o se debiera a fuerza mayor dará lugar al pago parcial de la subvención o, en su caso, al reintegro parcial aplicando la proporción en que se encuentre la actividad realizada respecto del total.

Si en la realización de una comprobación o control financiero por los servicios municipales se pusiera de manifiesto la falta de pago de todos o parte de los gastos justificados, después de cobrada la subvención, se exigirá el reintegro aplicando el principio de proporcionalidad, a cuyo efecto se considerará reintegrable la subvención en proporción a los gastos impagados.

Undécima.- Reintegro de la subvención.

Procederá el reintegro de las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora correspondiente desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro en los casos señalados en el artículo 37 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones.



Hamabigarrena.- Aplikazio orokorreko araua

Honako hitzarmenean aurrez ikusi gabeko gaietarako Aurrekontuaren Egikaritze Oinarrietan xedatutakoa izango da aplikagarri; Diru-laguntzei buruzko 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta haren garapen xedapenak; tokiko erregimenari buruzko araudia; Administrazio Publikoetako Erregimen Juridikoko eta Prozedura Administrazio Komuneke 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legea eta aplikagarri izan daitezkeen izaera orokorreko arauak.

Hamahirugarrena.- IRAUPENA.

Hitzarmen honek urtebeteko iraupena izango du.

Hamalaugarrena.- Erantzukizuna

Durangoko Udalak ez du inongo erantzukizunik hartuko bere gain DURANGOKO "DENDAK BAI" DENDARIEN ELKARTEAREN kudeaketari dagokionez, ezta ere Elkarreak, hitzartutako jarduerak burutzeko, kontraturiko enpresak eta profesionalak burutzen dituzten jarduera edo eskaintzen dituzten zerbitzuen gainean. Era berean, Udalak ez du erantzukizunik izango entitatearen harreman juridikoetan edota pertsona fisiko edo juridikoekin formalizatu behar duen kontratuetan.

LAU.- HIZKUNTZA NORMALKUNTZA PLEGUAREN ALDEKO IRISPENEA.

Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, Durangoko Udaleko Euskararen Erabilera Sustatzeko Plan Estrategikoaren laguntza-zerbitzua kontratatzeko espedientearen aldeko irizpena eman du. Nondik norakoak baldintza teknikoaren pleguan eta eranskinetan jasotzen dira. Gasta, 60.350 euro/urteko da, gehi dagokion BEZ.

BOST.- BIDEZKOA BALITZ, OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETAREN KONTRATAZIO-ESPEДИЕНТЕА ONARTZEA

Ikusirik Durangoko Udalen oinarritzko lanbide heziketaren zikloaren hezkuntza- eta administrazio eginkizunen zerbitzuaren kontratazioaren gaineko espedienteak.

Kontuan izanda aipatutako espedientearen bete egiten direla sektore publikoaren kontratuen legeak eskatzen dituen betebeharrak lizitazioa egin baino lehen.

Azaroaren 14ko, 3/2011 legegintzako errege dekretoaren bigarren xedapen gehigarriak

Decimosegunda.- Norma de aplicación general.

Para lo no previsto en la presente convocatoria resultará de aplicación lo dispuesto en las Bases de Ejecución del Presupuesto; la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y sus disposiciones de desarrollo; la regulación en materia de régimen local; la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, así como cuantas normas de carácter general resulten de aplicación.

Decimotercera.- DURACIÓN.

El presente convenio tendrá una duración de 1 año.

Decimocuarta.- Responsabilidad.

El Ayuntamiento de Durango no asume ningún tipo de responsabilidad por la gestión de LA ASOCIACIÓN DE COMERCIANTES DE DURANGO "DENDAK BAI" ni por los actos realizados y servicios prestados por la misma y las empresas y profesionales contratados por la misma para el desarrollo de las actividades convenidas, así como en las relaciones jurídicas y los contratos que deba formalizar la Entidad y las personas, sean físicas o jurídicas, suministradoras.

CUATRO.- INFORMAR FAVORABLEMENTE PLIEGO NORMALIZACIÓN LINGÜÍSTICA.


La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, informa favorablemente el expediente para la contratación del servicio de Asistencia en el desarrollo del Plan Estratégico General de Promoción del Uso del Euskera del Ayuntamiento de Durango con el alcance que se describe en el pliego de condiciones técnicas así como en los Anexos que integran el mismo, así como un gasto de 60.350 euros/año más el IVA correspondiente.

CINCO.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE EXPEDIENTE DE CONTRATACIÓN DE FORMACIÓN PROFESIONAL BÁSICA.

Visto el expediente relativo a la contratación servicio docente y tareas administrativas de los Ciclos de Formación Profesional Básica del Ayuntamiento de Durango.

Considerando que en el citado expediente se ha dado cumplimiento a los requisitos previos a la licitación exigidos por la Ley de Contratos del Sector Público.

En virtud de las competencias que atribuye la Disposición Adicional Segunda, apartado



ematen dituen eskumenak aintzat hartuta, eta 2015eko ekainaren 26ko alkatearen dekretu bidezko delegazioa kontuan izanda, tokiko gobernu batzordeak, aho batez, hauxe

ADOSTU DU:

1.- CONT-008/2017 kontratazio espedientea onartzea, "Durangoko Udaleko oinarritzko lanbide heziketako zikloen hezkuntza- eta administrazio eginkizunen zerbitzua" emateari buruzkoa; halaber, bostehun eta hirurogeita bost mila (565,000,00 €) euroko gastua ere onartzen da, BEZ gabe.

2.- Honakoak ere onartzen dira: administrazio berezien klausulen plegua, administrazio berezien klausulen karatula eta kontratua arautuko duen baldintza teknikoen plegua.

3.- Kontratua prozedura ireki bidez esleitzeko prozedurarekin hastea ebatzen da, dagozkion iragarkiak bidalita.

SEI.- "BERDEAGO" HITZARMENAREN ALDEKO IRIZPENA.

Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, **DURANGOKO UDALAREN ETA TAZEBAEZ KOOP. ELKARTEA**ren arteko hitzarmenaren aldeko irizpena eman du.

Durango, 2018ko ekainaren-(e)an

BILDURIK: Batetik, Aitziber Irigoras Alberdi andrea, Durangoko Udaleko alkatea den heinean (NAN 30.671.142), eta ekintzaren fede ematen duen Idazkari Nagusi RAMON SORARRAIN TOLOSA jaunak lagundurik, NAN 14.586.472X.

Eta bestetik. XXXXXXXXXXXX, NAN XXXXXXXXXXXX TAZEBAEZ KOOP. ELKARTEAren izenean eta bere ordezkari gisa.

DIHARDUTE: Aitziber Irigoras Alberdi andrea, Durangoko Udaleko alkate gisa; RAMÓN SORARRAIN TOLOSA, Durangoko Udaleko idazkari orokor moduan eta TAZEBAEZ KOOP ELKARTEAREN XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX, bere izenean eta ordezkari gisa.

primero del Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre y por delegación de la Alcaldía mediante Decreto de fecha 26 de junio de 2015, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

ACUERDA:

1.- Aprobar el expediente de contratación CONT-008/2017 relativo a la prestación del "servicio docente y tareas administrativas de los Ciclos de Formación Profesional Básica del Ayuntamiento de Durango", así como un gasto de quinientos sesenta y cuatro mil quinientos sesenta y cinco mil euros con ochenta (565.000,00 €), IVA exento.

2.- Aprobar el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, la Carátula del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, así como el Pliego Técnico que han de regir el referido contrato.

3.- Disponer la apertura del procedimiento para la adjudicación del contrato mediante procedimiento Abierto, procediendo al envío de los correspondientes anuncios.

SEIS.- INFORMAR FAVORABLEMENTE CONVENIO CON "BERDEAGO".


La Junta de Gobierno Local, por unanimidad de los presentes, informa favorablemente el **CONVENIO ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE DURANGO Y TAZEBAEZ KOOP. ELKARTEA** cuyo tenor literal es el siguiente:

En Durango, a x de junio de 2018

REUNIDOS: De una parte, XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX, con D.N.I. XXXXXXXX, XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX XXXXXXXXXXXX del AYUNTAMIENTO DE DURANGO, asistido por el secretario general Don RAMÓN SORARRAIN TOLOSA, con D.N.I. nº 14.586.472-X, que da fe del acto.

Y de otra, representada por XXXXX, con D.N.I. XXXXX, en su condición de XXXX de la TAZEBAEZ KOOP. ELKARTEA con C.I.F. F95729315.

ACTÚAN: Don XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX, en su calidad de XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX; Don RAMÓN SORARRAIN TOLOSA, en su calidad de secretario general del Ayuntamiento y Don XXXXX, como XXXX de TAZEBAEZ KOOP ELKARTEA, en nombre y representación de la misma.



AITORTU ONDOREN hitzarmena aurrera eramateko, batak besteari behar besteko gaitasun juridikoa

ADIERAZTEN DUTE:

I.- TAZEBAEZ KOOP ELKARTEA entitate pribatu bat da, eta esperientzia handia du ingurumeneko azoka jasangarriak antolatzen eta, orokorrean, eraginkortasun energetiko eta kontsumo arduratsuaren teknikak, praktikak eta esperientziak gizartearen hedatzen.

II.- Durangoko Udalak, ingurumena eta garapen jasangarria babestu, kudeatu, defendatu eta babesteko antolakuntza osagarriaren gainera Euskadiko toki erakundeak, apirilaren 7ko, 2/2016 legearen 17.8 artikulua ematen dion eskumena baliatuz, hiriguneetako kutsadura akustiko, luminiko eta atmosferikoa babesteko erantzukizuna barne, berebiziko interesa dauka Durangoko herritarren sentsibilizazioa eta erantzukizun partekatua sustatzeko jasangarritasunaren inguruan, batez ere, eragingarritasun energetiko eta kontsumo arduratsuaren esparruetan.

III.- Ingurumen jasangarriko euskal azoka honen antolakuntza TAZEBAEZ KOOP ELKARTEAri dagokio.

IV.- Aipatutako azoka Durangon egingo da 2019ko eta 2020ko urtarilean (gehienez ere otsaileko lehenengo hamabostaldian), eta honako ezaugarri hauek izango ditu: ingurumen jasangarriaren inguruko erakusketa profesionalak gizarte osoari zuzenduak, hitzaldiak, pelikulak, gazteentzako ludotekak, betiere, ingurumen jasangarritasuneko esparru hauek aintzat haintzat hartua: eragingarritasun energetikoa, mugikortasuna, kontsumo arduratsua,...

V.- Durangoko Udalak lankidetzara esparru iraunkor bat jarri nahi du abian jasangarritasun esparruko interesak lortze aldera. Horrexegatik, hain zuzen ere, formalizatzen da ondorengo ezaugarriak dituen lankidetzara hitzarmen hau:

KLASULAK

DURANGOKO UDALAK HARTZEN DUEN KONPROMISOA.- Durangoko Udalak 18.000 (HAMAZORTZI MILA) euroko dirulaguntza emango dio TAZEBAEZ KOOP ELKARTEARI. Dirulaguntza honek xede izaera izango du, eta aipatutako elkarteak Durangoko Udalarekin hartuko dituen konpromisoak aurre egiteko erabiliko da. Konpromisuok hurrengo klausulan zehazten dira. Diru-laguntza honako diru-partidaren kargura joango da: 41 XXXX. XXXXX.

TAZEBAEZ KOOP ELKARTEAK HARTURIKO KONPROMISOA.-

Aipatutako erakundeak hartzen dituen konpromisoak:

- "BERDEAGO - INGURUMEN JASANGARRIAREN EUSKAL AZOKA" antzolatzea Durangon.

RECONOCIÉNDOSE las capacidades jurídica y de obrar necesarias y suficientes para el presente convenio, en la calidad con que actúan

MANIFIESTAN:

I.- Que TAZEBAEZ KOOP ELKARTEA es una entidad privada, con una dilatada experiencia en la organización de la Feria de Sostenibilidad Medioambiental y, en general, en el fomento de difusión en la sociedad de técnicas, prácticas y experiencias en materia de eficiencia energética y consumo responsable.

II.- Que el Ayuntamiento de Durango, en ejercicio de la competencia que le otorga el artículo 17.8 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi en materia Ordenación complementaria, promoción, gestión, defensa y protección del medio ambiente y desarrollo sostenible, incluida la protección contra la contaminación acústica, lumínica y atmosférica en las zonas urbanas está especialmente interesado en sensibilizar y fomentar la corresponsabilidad en materia de sostenibilidad a la ciudadanía de Durango, fundamentalmente en los campos de la mejora de la eficiencia energética y el consumo responsable

III.- Que la organización de la citada Feria Vasca de Sostenibilidad Medioambiental en Durango recae sobre la TAZEBAEZ KOOP ELKARTEA.

IV.- Que dicha Feria se celebrará en Durango en enero (a más tardar primera quincena de febrero) de 2019 y 2020 y tendría las siguientes características: Exposiciones profesionales en materia de sostenibilidad medioambiental dirigida a la sociedad en general, charlas divulgativas, películas, ludotecas dirigida a los más jóvenes en las diferentes materias sobre la sostenibilidad medioambiental (eficiencia energética, movilidad, consumo responsable,...).

V.- Que el Ayuntamiento de Durango desea establecer un marco estable de colaboración en la consecución del interés en materia de sostenibilidad. Es por lo que formalizan el presente Convenio de Colaboración, que contiene las siguientes.


CLÁUSULAS

COMPROMISO ASUMIDO POR EL AYUNTAMIENTO DE DURANGO.- El Ayuntamiento de Durango subvencionará con 18.000 (DIECIOCHO MIL) euros a la TAZEBAEZ KOOP ELKARTEA, subvención de carácter finalista que será destinada por la misma al cumplimiento de los compromisos que ésta asuma frente al Ayuntamiento de Durango, que se describen en la cláusula siguiente. La partida de cargo será la 41.XXXX.XXXXX.

COMPROMISO ASUMIDO POR TAZEBAEZ KOOP ELKARTEA.-

La entidad mencionada se compromete a:

- Organizar la Feria denominada "BERDEAGO - FERIA VASCA DE SOSTENIBILIDAD MEDIOAMBIENTAL" en Durango.



Idazkaritza
Secretaría

- Beharrezkoak diren finantziario iturriak eta babesa bilatzea aipatutako azoka antolatze aldera, Durangoko Udalak egingo duen ekarpenaz gain.
- Durangoko Udalaren logotipoa jartzea, edozein delarik euskarria, edozein eratako publizitate eta iragarkietan (prentsa idatzia, irratia, telebista, e.a.)
- Jasotako diru-laguntza justifikatzea hitzarmen honetan ezartzen diren konpromisoen gaineko dokumentazioa eta urtean zehar egindako ekintzen memoria aurkeztuta. Justifikazioa aurkezteko azken eguna: 2019ko martxoaren 31. Diruz-lagunduko diren gastuak honako hauek dira: egitasmoa abiatzeko gastuak, memoriak, egikartiza egitasmoak, arrendamenduak eta kanonak, konponketak eta zainketa, zerbitzu profesional independenteak, aseguru primak, publizitatea, propaganda eta harreman publikoak, hornidurak, bestelako zerbitzuak eta, baita ere, "BERDEAGO – INGURUMEN JASANGARRIAREN EUSKAL AZOKA" egitasmoa burutzeko bestelako gastuak.
- Iragarkiak, oharak eta gainerako komunikazioak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialean egingo dira. Propagandari dagokionez ere gauza bera, propaganda ahozkoa zein idatzizkoa izan. Betebehar hau diruz lagundutako ekintzak justifikatzeko orduan egin behar da.
- Buscar el patrocinio y/o fuentes de financiación que se requieran con el fin de organizar la mencionada Feria, al margen de lo aportado por el Ayuntamiento de Durango.
- Incluir, tanto en la publicidad como en los anuncios que realice de las actividades subvencionadas transmitidas por cualquier soporte (prensa, radio, televisión, etc) el logotipo del Ayuntamiento de Durango.
- Justificar la subvención recibida presentando la documentación de los compromisos adquiridos en este convenio junto con la memoria de actividades realizadas durante el año. Último día de presentación: 31 de marzo de 2019. Los gastos subvencionables son: gastos de puesta en marcha, tipo memorias y proyectos de ejecución, arrendamientos y cánones, reparaciones y conservación, servicios profesionales independientes, primas de seguros, publicidad, propaganda y relaciones públicas, suministros, otros servicios, así como cualquier gasto que haya sido realizado con el con el propósito de la ejecución del proyecto denominado "BERDEAGO – FERIA VASCA DE SOSTENIBILIDAD MEDIOAMBIENTAL".
- Redactar y dar a conocer en euskera o en las dos lenguas oficiales los anuncios, avisos y demás comunicaciones que publiquen, debiendo proceder de igual manera con la propaganda, sea oral o escrita. El cumplimiento de esta obligación deberá acreditarse al justificar la realización de las actividades subvencionadas.

DIRULAGUNTZA ORDAINTZEKO ERA.- Durangoko Udalak honela ordainduko dio TAZEBAEZ KOOP ELKARTEARI: %60a hitzarmena indarrean sartzen den hilabeteko azkeneko egunean ordainduko da. Gainerako %40a, dirulaguntza eman izanagatik helburua bete ondoren eta gastua justifikatu ostean ordainduko da.

IRAUPENA.- Hitzarmena 2 urterako sinatzen da, hitzarmena sinatzen den egunetik zenbatuta. Epe hau amaitu ostean hitzarmena iraungita geratuko da, bi aldeetako batek hitzarmena bertan behera uztea ezkatu behar ez duelarik.

HITZARMENA BERTAN BEHERA UZTEA.- TAZEBAEZ KOOP ELKARTEAK hartu dituen konpromisoak betetzen ez badira, lankidetzeta-hitzarmena bertan behera geldituko da, eta jasotako dirulaguntza itzuli beharko da, halaxe ezartzen baitute dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 41etik 43ra arteko artikuluek.

BATERAGARRITASUNA.- Dirulaguntza hau bateragarria da beste erakunde publiko edo pribatuetatik jaso daitekeenekin. Nolanahi ere, eta gain-finantzaketa izan ez dadin, onuradunak, gastua justifikatzerako orduan, beste erakundeetatik jaso izan dituen dirulaguntzen egiaztagiria aurkeztu behar ditu.

ARAUDI OSAGARRIA.- Hitzarmen honek ezartzen ez duenari dagokionez, honako lege testuak hartuko dira aintzat: Durangoko Udalaren dirulaguntzak eta bestelako


FORMA DE PAGO DE LA SUBVENCIÓN.- El pago de la subvención por el Ayuntamiento de Durango a la TAZEBAEZ KOOP ELKARTEA se realizará de la siguiente forma: 60% al mes de la entrada en vigor del Convenio. El 40% restante se abonará a la justificación del importe global financiado por el Ayuntamiento de Durango y tras la presentación del balance global de gastos.

DURACIÓN.- El presente convenio tendrá una duración de DOS (2) AÑOS contados a partir de la firma del presente convenio, quedando el mismo extinguido a su finalización sin necesidad de denuncia previa por cualquiera de las partes.

EXTINCIÓN.- El incumplimiento de los compromisos adquiridos por TAZEBAEZ KOOP ELKARTEA producirá, además de la extinción inmediata del Convenio de Colaboración, la obligación de reintegrar el importe de la subvención, total o parcialmente, de acuerdo con lo establecido en los artículos 41 a 43 de la Ley 38/2.003, General de Subvenciones.

COMPATIBILIDAD.- La presente subvención es compatible con otras procedentes de cualquier organismo público o privado. No obstante, y en aras de que no haya sobrefinanciación, el beneficiario, en el momento de proceder a la justificación del gasto, deberá presentar documentación acreditativa de las subvenciones percibidas a través de otros organismos.

NORMATIVA COMPLEMENTARIA.- En lo no dispuesto en este Convenio se estará a lo indicado en los siguientes textos legales: Ordenanza reguladora de subvenciones y



laguntzak arautzen dituen Ordenantza; dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra; 887/2006 Errege Dekretua eta toki erregimeneko araudi bateragarria.

ayudas del Ayuntamiento de Durango; Ley 38/2003 General de Subvenciones; RD 887/2006 y normativa de régimen local concordante.

Adostutakoaren lekuko, dokumentu honetako edukiak jasotzen duena baieztatuz eta berretsiz, eta leialki eta zintzoki beteko dutela aginduz, bi parteek hitzarmenaren bi ale izenpetu dituzte, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

Y para que conste en señal de conformidad, afirmándose y ratificándose en el contenido del presente documento, que prometen cumplir leal y fielmente, lo firman por duplicado ejemplar a un sólo efecto, en el lugar y fecha arriba indicados

ZAZPI.- "NIK DURANGO" EGITASMOAREN ALDEKO IRIZPENA.

Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, Nik durango egitasmoaren aldeko irizpena eman du. Egitasmoak honakoak jasotzen ditu:

1.- Lokalen errolda egitea.

2.- Durangoko Udalak, Dendak Bai elkartearekin batera, komunikazio kanpaina bat sortu eta abian jarriko du lelo indartsu bat erabiltzeko (Nik Durangon erosten dut, Durango beti...).

ZORTZI.- ESKAERAK ETA ITAUNAK

Ez dira egiten.

SIETE.- INFORMAR FAVORABLEMENTE EL PROYECTO "NIK DURANGO".

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad de los presentes, informa favorablemente el Proyecto Nik Durango cuyos aspectos más importantes son:

1.- Creación de censo de locales.

2.- La creación y puesta en marcha de una campaña de comunicación bajo un lema pegadizo y contundente (Nik Durangon erosten dut, Durango beti...) por parte del Ayuntamiento en colaboración con Dendak Bai.

OCHO.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

No se formulan.

Gai-zerrendan jasotako gaiak landu ostean, eta 18:00 direnean, alkate-presidenteak amaitutzat eman du batzarra, eta akta jasotzeko ekin zaio; eta nik, udalbatzako idazkari nagusia naizen honek, fede ematen dut.

Y HABIENDO finalizado con los asuntos comprendidos en el Orden del Día, siendo las 18:00 horas, por la Alcaldesa-Presidenta se da por finalizada la sesión, levantándose la presente Acta; de todo lo cual yo, como Secretario General de la Corporación, doy fe.